

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2016ko urriaren 3tik urriaren 7rako astea

INGURU MAKROA:

- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...


ASTE HONETAN MERKATUETAN

GURE IKUSPEGIA

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: MANUFAKTUREN ETA ZERBITZUEN PMI



Datuaren analisia

Euroguneko Manufakturen PMIak iraileko 52,6 puntuak berretsi zituen, eta horrela, Euroguneko industria-sektorearen sendotasuna baieztatuta geratu zen. 16ko 3. hiruilekoan, hazkunde-eritmoa % 2koa izan zela erakutsi zuen indizeak. Ekoizpenaren, eskari berrien eta esportaziorako eskari berrien hazkundera zeuden datuaren igoeraren atzean. Gainerako herrialdeetan, PMI guztiak igo ziren, eta nabarmentzekoa izan zen Alemaniako Manufakturen PMIaren igoera, 54,3 puntuetaraino. Atzetik daude Espainia eta Italia, 52,3 eta 51,3raino, hurrenez hurren, igo ziren PMIekin. Eta kontrako aldean Frantzia daukagu, gora egin arren, 49,7 puntuetan baitago oraindik PMIa.


Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosteten profesionaleri eta enpresetako exekutiboeri manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia

Alemaniako industria-ekoizpena % 2,5 egin zuen gora abuztuan. Industria-sektorean, ekoizpenak aurreko hilean baino % 3,3 gehiago hazi zen. Energiaren sorrerari dagokionez, % 1,1 egin zuen gora, eta eraikuntza-sektoreko ekoizpenak % 1,2 egin zuen atzera. Frantzian, industria-ekoizpena % 2,1 igo zen. Hazkunde hori ekipo-ondasunen eta garraiorako materialaren portaera onari esker gertatu zen. Espainiako industria-ekoizpena urte arteko % 4,0raino igo zen abuztuan, uztailan erakutsitako moteltzearen ondoren, urtaroaren eta egutegiaren eraginak albo batera utzita. Ekipo-ondasunen sektorea % 12,7ko igoerarekin nabarmendu zen, kontsumo-ondasunak % 2,6 igo ziren bitartean. Hileko datuei begiratuta, industria-ekoizpenak % 1,4 egin zuen gora abuztuan (% -0,1 esperotakoa), uztailan izan zuen % 0,1eko igoeraren ondoren.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: MANUFAKTUREN ETA ZERBITZUEN ISM



Datuaren analisia

Irailako ISM manufaktura-indizeak aurreko hileko datu okerra gainditu zuen, eta 51,5 puntuetaraino iritsi zen. Haren osagai guztiek hobera egin zuten. Hain zuzen ere, eskari berrien (49,1 puntutik 55,1era) eta ekoizpenaren (49,6tik 52,8ra) osagaiak nabarmen hazi ziren, eta horrek agerian uzten du Estatu Batuetako industria-sektorearen aukerak hobetu egin direla. Zerbitzuen ISMak sorpresa eman zuen irailan, azken 11 hiletako maximoetara heldu ondoren (51,4tik 57,1era, 53 aurreikusita bazegoen ere), azken 20 urteotako hazkunderik handienarekin. Aginduen eta enpleguaren osagaiak izan ziren indizearen aurrerapen honen liderrak.


Adierazlearen azalpena

ISM zerbitzuen/manufaktura-indizeak konpainia amerikar nagusietako erosketen arduradunei hileroko egiten zaien inkesta bat du oinarri. Bertan, manufaktura-sektorearen egoeren inguruan galdetzen zaie. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzurtzen ari den seinale.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



Datuaren analisia

Irailean, 156.000 enplegu sortu ziren, merkatuak espero zituen 175.000etatik oso urruti. Era berean, 100.000 langabetu gehiago erregistratu ziren, eta guztira 7,9 milioi pertsonaraino iritsi zen datu hori. Langabezia-tasa, beraz, hamarren bat egin zuen gora, % 5eraino. Estatu Batuetako ordurako ordainsariak % 0,2 egin zuen gora irailean, aurreikusita zegoen moduan, eta aurreko hilean erregistratutako % 0,1eko igoeraren ondoren. Zerbitzu pribatuak lanpostuen sorreraren buruan egon ziren berriro irailean. Enplegu sailak gorantz berrikusi du abuztuko lanpostu-sorreraren datua: 151.000tik 167.000ra, baina uztaileko kalkulua murriztu du: 275.000tik 252.000ra.

Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilero argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-merkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu egiten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
10/10	Alemania	Balantza komertziala	19.5b
10/10	Frantzia	Bank of France enp sentimentua	99
10/10	Italia	Hileko industria-ekoizpena	-% 0.1
10/10	Eurogunea	Sentix inbertsiogilearen konfiantza	6.0
10/11	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	55.5
10/12	Alemania	Handizkako urte arteko prezioen indizea	--
10/12	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 0.4
10/12	Eurogunea	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	% 1.5
10/12	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
10/12	Estatu Batuak	Fed-en ordainsariak	--
10/13	Alemania	Urte arteko KPIa	% 0.7
10/13	Estatu Batuak	YoY inportazio prezioen indizea	% -1.0
10/13	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	253k
10/13	Txina	Balantza komertziala	\$53.00b
10/14	Japonia	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	% -3.2
10/14	Txina	Urte arteko KPIa	% 1.6
10/14	Espainia	Urte arteko KPIa	% 0.3
10/14	Italia	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	% 0.1
10/14	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratuak	% 0.6
10/14	Estatu Batuak	Urte arteko ekoizpen-prezioen indizearen azken eskaria	% 0.6
10/14	Estatu Batuak	Negozioen inbentarioa	% 0.1
10/14	Estatu Batuak	Sentimendua Michigango Unibertsitatea	92.0

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK

Aste honetan, atzerakada arinak Europa eta Amerikako plaza nagusietan. AEBtan, Fed-eko kideek laster tasak igotzearen alde egindako adierazpenek finantza-sektorea bultzatu zuten. Hala ere, eta ISMaren datu onak gorabehera, tasen igoerek gehiago eragiten dioten sektoreen portaeraren eta ostiralean espero zirenak baino ahulagoak izan ziren enplegu-datuen ondorioz, indize amerikar nagusiek zenbaki gorritan itxi zuten. Europan, Bloombergek argitara emandako txostenean, EBZk programa bukatu aurretik aktiboen erosketa pixkanaka murriztea ("tapering") erabaki zezakeela esaten zen, eta horrek ziurgabetasuna sortu zuen. Beste alde batetik, immigrazioa bere politiken erdigunean dagoela eta martxoan 50. artikulua erabiliko duela esateko lehenengo ministro britainiarrak egin zituen adierazpenek eragin negatiboa izan zuten merkatuan. Liberaren kotizazioaren beherakadaren eta Brexit gogor baten aurreko beldurraren ondorioz, burtsek jaitziera handiak izan zituzten aste bukaeran. Asian, Yenak Dolarraren aurrean balioa galtzeak Nikkei indizeari lagundu zion, eta aurrerapen handiekin itxi zuen astea. Burtsa gorakorren portaera ere ona izan zen.

ERRENTA FINKOIA:

Amerikako bonuen errentagarritasuna handitu egin zen astean, datu makro onak eta AEBtan tasak igotzeko aukera handiagoak oinarri. 10 urterakoa 12 op igo zen, % 1,72raino. Modu berean, Europan, EBZren "tapering" zurrumurruak gorantz bultzatu zituzten errentagarritasunak. 10 urterako Alemaniako bonuak 14 op handituz itxi zuen astea, eta maila positiboetara iritsi zen berriro (% +0,02). Zor periferikoak ere joera bera izan zuen, eta 10 urterako bonu espainiarraren errentagarritasuna % 1etik gora igo zen, arrisku-prima 100 op-etan mantendu zen bitartean. Errenta finko pribatuan ere tentsionamendu hau bizi izan zen, are nabarmenago.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Hasieran espero zena baino Brexit gogorrago baten aurreko beldurrak liberaren kotizazioaren erorketa ekarri zuen. Azken 30 urteotako mailarik baxuenera iritsi zen Dolarraren aurrean, eta 3 hiletako minimora Euroaren aldean. Euroarekiko truke-tasa 0,90£/€-an kokatu zen aste amaieran. Gainerako trukeetan, dolarrak indar pixka bat irabazi zuen. Petrolio gordinaren prezioak goraka egin du, aurreko asteetan bezala, AEBtako asteko inbentarioen kopuruaren erorketaren laguntzarekin. 50\$/upela mailatik gora finkatu da. Urreak erakarmena galdu du, eta erorketa gogorra bizi izan du, 1.256\$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	% Ald 2016
MSCI WORLD (Local)	1.304,93	-0,15	2,13
IBEX 35	8.624,30	-1,77	-9,64
DJ EURO STOXX 50	3.000,57	-0,06	-8,17
DJ STOXX 50	2.832,77	-0,37	-8,63
FTSE	7.044,39	2,10	12,85
S&P 500	2.153,74	-0,67	5,37
Dow Jones	18.240,49	-0,37	4,68
NASDAQ	5.292,41	-0,37	5,69
NIKKEI 225	16.860,09	2,49	-11,42
MSCI EMERGENTES (Lo)	49.271,63	1,49	10,76
MEXBOL	47.596,60	0,74	10,75
BOVESPA	61.108,98	4,70	40,97
SHANGHAI	3.145,17	0,00	-15,09
Rusia Rts Moscú	1.002,07	1,13	32,37

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	% Ald 2016
ALEMANIA 2 AÑOS	-0,67	0,02	-0,32
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,21	0,01	-0,21
EE.UU 2 AÑOS	0,83	0,07	-0,22
ALEMANIA 10 AÑOS	0,02	0,14	-0,61
ESPAÑA 10 AÑOS	1,02	0,14	-0,76
EE.UU. 10 AÑOS	1,72	0,12	-0,55
ALEMANIA 30 AÑOS	0,65	0,20	-0,84
ESPAÑA 30 AÑOS	2,16	0,17	-0,82
EE.UU. 30 AÑOS	2,45	0,14	-0,57
Spread de credito (pb)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/21	73,84	1,25	-3,43
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/21	333,11	0,61	18,49

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2016
Dolarra / Euroa	1,12	-0,34	3,19
Yena / Euroa	115,52	2,29	-12,05
Libera / Euroa	0,90	3,54	21,53

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	2016ko % Ald
Petrolio (Brendt)	50,33	5,49	40,78
Urrea	1.256,93	-4,47	18,42

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.